

Herri musikaren alde batzuk

(Some aspects of popular music)

Beltran Argiñena, Juan Mari

Herri Musikaren Txokoa. Tornola kalea, 6. 20180 Oiartzun

BIBLID [1137-859X (2007), 9; 381-399]

Jaso: 05.04.11

Onartu: 06.07.10

Munduko herri denek edo gehienek daukate berezko kultura eta horren zati bat kontsideratzen den berezko musika. "Herri-musika" izendapena edo kategoria hartzeko ez du gehiegí axola musika horren jatorria zein eta nolakoa den. Bertan sortua izan den edo kanpotik etorria izan den. Aspaldikoa izan edo bestela momentu batean kanpotik sartu den musika izan eta gero bertakoek berezkotasuna emanez kanpokoa zena bertakoa egin dutela. Zer da eta nola osatu da herriarekin hain lotuta eta identifikatuta dagoen ondare kultural hori?

Giltza-Hitzak: Herri musika. Euskal musika. Herri kultura.

Todos o la mayoría de los pueblos del mundo poseen una cultura propia y se considera que la música propia es una parte de ella. Para adquirir la denominación o categoría de "música popular" no importa demasiado cuál sea el origen de esa música ni su tipo. Si ha nacido en el lugar o proviene de fuera. Si es antigua o si ha penetrado desde fuera en un momento dado y después la han naturalizado los nativos, haciéndola suya. ¿Qué es y cómo se ha constituido ese patrimonio cultural tan unido al pueblo y tan identificado con él?

Palabras Clave: Música popular. Música vasca. Cultura popular.

Tous ou la plus grande partie des peuples du monde possèdent une culture propre et l'on considère que la musique propre est une partie de cette culture. Pour acquérir la dénomination ou la catégorie de «musique populaire», ni l'origine ni le type de cette musique n'ont d'importance. Si elle est née dans cet endroit ou si elle vient d'ailleurs. Si elle est ancienne ou si elle est venue d'ailleurs à un certain moment et que les natifs l'aient naturalisée, en la faisant leur. Qu'est-ce que et comment s'est constitué ce patrimoine culturel si uni et identifié au peuple?

Mots Clés: Musique populaire. Musique basque. Culture populaire.

Oharra: Hasteko gure artean elkar ulertu ahal izateko eta orain bestelako arrazoiketarik eman gabe zera esan behar dut, hemen askoren artean “musika folklorikoa” izendatzeko musika tradizionala erabiltzen den bezala, hori adierazteko nik “herri-musika” izena erabiliko dudala.

1. EGUNKARI BATERAKO EUSKAL MUSIKARI BURUZ KAZETARI BATEK EGIN NAHI IZAN ZIDAN ELKARRIZKETAREN PORROTA

Behin bakarrik gertatu zait elkarrizketa bat hasi eta ezin bukaturik utzi behar izatea, baina kasu hartan hala gertatu zen. 2000. urte inguruan, HM txokoan nengoelarik, euskal musikari buruzko elkarrizketa egiteko hitzordua jarri genuen kazetariak eta biok. Kazetariak niregana jo zuen gai hori ezagutzen nuelakoan eta elkarrizketa honela hasi zuen:

1. galdera: Alderatzuz gero, zer ezberdintasun dago gure arbasoen eta gaur egungo euskal musikaren artean?

Ni harriturik geratu nintzen espero ez nuen galdera horrekin eta nola erantzun une batean pentsatu ondoren honela esan nion:

Nik ezin dizut erantzun nik ez baitakit gure arbasoen musika nolakoa izango zen. Jakin badakit gutxi gora behera orain 500 urtetik gaur arte (eta hori baino datu zaharragoak, ezagutzen ditugun gutxi batzuk) zeintzuk izan diren gure artean erabilitako soinu-tresnetako batzuk, baina ez dakit soinu-tresna horien hotsa nolakoa zen, nolako eskala edo interbalika ematen zuten, doinu horien neurriak nolakoak ziren (esate baterako jakin badakigu XVIII mendez geroztik zortziko neurria nagusitu zela Europa aldean eta horren eraginez gure musikan ere eragin handia izan zuela) beraz, ezin dugu ezagutu nolako musika egiten zuten.

Nire erantzuna entzuterakoan kazetariak berak egindako galdera nik ez nuela ondo ulertu pentsatu zuen eta ulertzen lagundu nahian honela esan zidan:

2. galdera: Ez duzu ulertzen? Esate baterako, trikitixaren kasuan soinu-tresna hori urtetan ezagutu da aldaketarik gabe eta azken urte hauetan trikitilari gazte hauen eskuetan honek izugarritzko iraultza eta aldaketa egin du. Bi trikitixa mota daude; lehenagokoa eta oraingoa.

Berriz ere zer esan ez nekiela geratu nintzen eta gutxi gora behera honela erantzun nion:

Soinu-tresna hori bide batetik edo bestetik Euskal Herrira XIX. mende bukaeran iritsi zen. XIX eta XX. mendeetako aldaketa garaikoak dira gure aurreneko “soinu-jole” edo “akordeoilari”ak. Beste soinu-tresnekin egiten zen musika erreperertoriotik abiatu eta zeukaten berezko gaitasunez baliatu sortu zuten musika mota berri bat. Hasieran eskuinarekin melodia monodikoak eginez eta ezkerrekin bi botoi erabiliz jotzen zuten. Geroago, eta soinu-tresna garatzen zuen bilakaerari jarraituz, ezkerrean baxu gehiago erabiliz eta esku-

narekin bi edo botoi gehiago sakatuz jotzen zuten. Ondoren, eta Elgetaren grabazio zaharretan entzun daitekeen bezala, ezkerrekin ez zuten bakarrik oinarizko erritmoa eta harmonia markatzen baizik eta ezkerrekin joko konplexuagoak egiten zituzten eta batzuetan esku horrekin “kantatu” edo joko melodikoak egiten zituzten. Hasierako soinu diatoniko haiekin tonu aldaketa egitea ezinezko zela eta geroagokoekin oso zaila, 21 botoizko soinuari beste bi botoi erantsi zizkieten tonu aldaketak egin ahal izateko. Garai hartakoa izan zen bariazio melodikoak egiten hastea eta erreperitorioan “pekatuak” ziren beste dantza erritmo eta melodiak sartzea.

Horrela izan da “betiko trikitixa tradizionala” bezala ezagutzen duguna, eta ikusten denez ehun urteko bizitzan beti aldatzen aritu delarik izugarritzko bilakera eman duena.

Nire iritziz gure artean mende bateko historia duen soinu-trena honetan aldatetako beti eman dira eta zenbait arlotan aldaketa handienak aurrekoek eman zituzten.

Nik emandako erantzun honek ez zuen balio izan, elkarrizketa blokeaturik zegoen eta pazientzia erabat galdu aurretik, kazetariak elkarrizketaren zerbait salbatu nahian aurretik prestatutako azken galdera egin zidan.

3. galdera: *Txalaparta noiztik erabiltzen da musika egiteko?*

– *Nola? Ez dizut ulertzen-*, erantzun nion.

Kazetariak: Txantxetan ari zara? Denok dakigu gure aurrekoek txalaparta baserri batetik bestera deiak eta mezuak bidaltzeko erabiltzen zutela.

Ez nuen gaizki bukatu nahi, elkarrizketa bideratu nahi nuen, ez nekien zer egin, gure arteko giroa gaiztotzen ari zen momentuz momentu, ez nuen irteera egokirik ikusten eta zerbait argitu nahian honela erantzun nion:

Nik dakidanez txalaparta beti, sortu zenetik musika egiteko tresna bat izan da. Ez dut txalaparta musikarik gabe imajinatzen. Gure txalapartari zaharrek horretarako erabiltzen zuten. Beharbada, esan behar dugu bere berezko musika jotzeko, baina hori musika da. Ezagutu ditudan txalapartari zaharrendik ez dut sekulan inongo dei edo mezua bidaltzeko joaldirik jaso, ezta aipamenik ere. Mezuak ea jotzen zituzten egin nion galderari Erbetegi-Etxeberriko Ramon Goikoetxea Astigarragako txalapartari zaharrak honela erantzuten zion: <<Soinujoleek nola jotzen dute “Andre Madalen” ba, guk berdin, txalaparta jotzen genuen>>).

Nire iritziz hori izan da txalapartaren funtzioa sortu zenez geroztik. Oraingo askori zaila egiten zaio ulertzea modu eta musika horrekin ordu luzez festa giroan jardun zitezkeenik, baina hori beste giro, inguru eta garaian gertatzen zen eta gaurko begiekin edo belarriekin ezin da ulertu. Horregatik beste esplikazio edo arrazoia, beraientzat ulergarri izan daitekeena, ematen zaio eta mezuarena izan da txalapartarien ingurutik kanpo asmatutakoa.

Horrela, jende askok daki "txalapartarekin mezuak bidaltzen zirela", txalpartariak eziz; eta antzekoa gertatzen da amerikar "bakeroen" pelikuletan hainbestetan ikusi dugun Ameriketako "indio"ek erabiltzen duten "ke-seinale"ekin. Denok dakigu "indio" horiek abisu eta mezuak bidaltzeko "ke-seinaleak" erabiltzen zituztela, beraiek eziz.

Eta azkenean, egiten ziren galderek behar bezalako erantzun txukunik lortzen ez zutelarik eta jarraitzea ezinezkoa zela ikusirik, despedida motz eta hotz batekin, hasitako elkarrizketa bertan behera utzi behar izan genuen.

Aspaldiko aldaketak eta gure garaikoak ez dira berdin ikusten. Urrutikoak ia ez dira apreziatzen edo ikusten eta egungoak denak handiak ikusten ditugu. "Miopia" horrek asko eragiten du Herri-musikarekiko aurriritzi eta jarrera okerrak edukitzea.

2. HERRI-MUSIKA

Hasieran esan dudan bezala, Herri-musikari buruz hitz egiteko alde aurretik herri-musika zer den edo hobeto esanda, niretzat edo guretzat herri-musika aipatzen dugunean zer musika motari buruz ari garen argitzea komeniko litzateke.

Munduko herri denek edo gehienek daukate berezko kultura eta horren zati bat kontsideratzen den berezko musika. "Herri-musika" izendapena edo kategoria hartzeko ez du gehiegi axola musika horren jatorria zein eta nolakoa den. Bertan sortua izan den edo kanpotik etorria izan den. Aspaldikoa izan edo bestela momentu batean kanpotik sartu den musika izan eta gero bertakoek berezkotasuna emanez kanpokoa zena bertakoa egin dutela.

Zer da eta nola osatu da herriarekin hain lotuta eta identifikatuta dagoen ondare kultural hori?

Asko dira herri-musika fenomeno fosilizatua, aldagaitza eta ekarpen berriak onartzen ez dituen delakoa pentsatzen dutenak. Askotan entzun behar izaten ditugu gisa honetako esaldiak: *Dantza horiek jo behar dira eta dantzatu behar dira azken bi mila urtetan egin den moduan!!!!!!*

Beraientzat, herri-musikak interpretazioa bakarrik onartzen du, sormenari aukerarik eman gabe. Horrela pentsatzen dutenetan, herri kulturarekin eta batez ere folkloarekin loturik daudenak dauzkagu. Beraiek interpretazio soilera mugatzen dira, "egiazko bertsioaren" benetakotasun eta jatortasuna aldarrikatuz (autentikoa).

Bestalde, askoz ere gehiago dira kontrako pentsatzen duten musika-ikerleak. Hauek herrietako berezko kultura aldakorra dela uste dute eta gure kasuan herri-musikaren doinu bat historiaren une batean eta era individual batean sortua izan ondoren, era aldagaitzean ez dela errepikatzen diote.

Ez dago bertsio “autentiko” bakarra: emaileek joera bizirik erabiliz interpreta-tzen duten bitartean beti interpretazio bakoitzean aldaketa handi edo txikiak eman-go dira (hori ez egiten saiatu arren). Emaille batetik bestera, inguru batetik bestera, momentu batetik bestera, nahiz eta emaille bera izan, zerbait berria agertuko da bertsio bakoitzean. Beraz, bertsio “autentikoa”ri buruz baina interpretazio modu “autentikoa”ri buruz hitz egin beharko genuke. Bertsio aldaezina den bakarra momentu batean grabatutakoa da, momentu horretako bertsio horren “argazki” sonoroa. Baina argazkiekin gertatzen den bezala horrela gertatzen da grabazio hauekin: zahartu egiten dira, tonua aldatzen dute, eta garrantzizkoagoa den beste gauza bat, entzuten dutenen pertzepzioa aldatzen da. Beraz, kasu hauetan ere zai-la izaten da bertsioaren erabateko “jatortasuna” mantentzea.

Hori musika idatzian ere ematen da, eta horrela ezagutzen dira idatzitako obra baten musikari, zuzendari edo talde baten eta bestearen bertsio ezberdi-nak. Eta musika idatzian horrela gertatzen bada, are gehiago herri-musikan. Lehenago ikusi dugun bezala, herri-musikan gehienetan ez da erabiltzen trans-misiorako euskarri idatzirik, ahoz ahokoa baizik.

Ahoz aho transmititutakoan, bakoitzak berea emanez sortzen dira oinarrizko doinu baten inguruan horrenbeste aldaera, batzuetan nortasun edo izaera pro-pioa hartzen duten bertsioak.

Herri-musika, zuzenean belaunaldiz belaunaldi transmititu da kolektibitate baten baitan edo familiar bertan. Bere osaketan, gehixeago edo gutxixeago, par-te hartzen joan da belaunaldi bakoitza, eta are gehiago, berau erabili duen per-sona bakoitza.

Herri doinu eta abestiak biltzen ibili eta ibiltzen direnak lekuko izan ziren eta dira, euren bilketa lanetan doinu edo abesti bat aho ezberdinetatik hartzerako-an, kantu eta musika hori bera nola aldatzen den, bai leku ezberdinetan jaso ondoren, eta bai leku bereko gazte bati edo heldu bati jaso ondoren ere. Halaber, aldaketa handia jasango du, abestua izatetik soinu-tresnaz jotzera pasatutakoan edo soinu-tresna ezberdinak erabilitakoan. Berdin gertatuko da, leku berean handik denbora batera berriro jasota, eta askotan interprete bera da saio bere-an aldaketak egiten dituen.

Horregatik, herri kantutegietan, jatorri bereko doinu berean aldaera handiak aurki ditzakegu. Honekin, herri-musika fenomeno bizia eta aldakorra izan zela, eta kasu askotan izaten jarraitzen duela frogatzen da. Interpretatzeko joera horrek eragiten du herri-musikan agertzen den berezko estilo aniztasuna.

Horrela agertzen dira A. Donostiaren “Cancionero Vasco P. Donostia” kantu-tegian kantu baten horrenbeste bertsio eskualde txiki batean:

Sagarraren 10 bertsio berezi, eskualde txikian, testua eta musika; Uso xuria 5;

Xoriñua norat hua/Xoriñuak kaiolan 11; Sortzez euskalduna 8; Mille zortzi egunean 6; Argizari ederra 9; Goizian goizik 6;

Hau dena aurretik esaten nuen bezala denbora epe motzean gazte, heldu eta zaharren artekoa (bi belaunaldi) eta esparru geografiko txiki batean. Bertsioren horietan, hasi hartzen eta, batzuegatik ere esan genezake “hau jada beste doinu bat da”. Hor ere muga zaila da jartzen.

Bertsioen arteko aldaketa hauek markatzen dute musika horren bidea eta estilo aldaketa nondik norakoa den.

Ikus dezagun C. Brailoiu etnomusikologo errumaniarrak horretaz zer esaten duen:

“Doinu herrikoiak.....benetan abestu edo interpretatzen den unean bakarrik du izatea, eta bere emailearen borondateagatik bakarrik bizi da, berak nahi duen moduan. Sortzea eta interpretatzea bertan nahasten dira... musika idatzi eta inprimatuak ezagutzen ez duen moduan” (Bartok, 1979).

Kantutegi herrikoiak horrela joan dira osatzen denboran zehar, bakarkako eta taldeko edo gizarte baten lanaren fruitu, denen artean itxura estetiko eta nortasun berezia emanez.

Ez dugu ahantzi behar, herrietako berezko kulturak fenomeno irekiak izan direla, eta historian zehar beren harremanetan elkarren eraginak izan dituztela.

Guretzat herri baten herri-musika, herri horrek berezkoa egin duen musika da. Berdin bertan sortua izan den ala ez, kanpotik hartua izan bada ere, bertakoek berezkoa egin badute, herri horretako herri-musika izatera pasa da. Ez da nahikoa entzutea, erabiltzea, bere bizitza kontsumo musikalean sartzeta, berea bailitzan hartzea. Berea egin nahi badute bertan berezko ezaugarriak hartu behar ditu.

Horra hori buruzko adibide batzuk:

Euskal txistularien “Segurako alborada” ezaguna, ziur aski militar koartelelako “quinto levanta tira de la manta” diana ospetsuetatik datorrena.

Nafar gaiteroen erreperitorio tradizionalen agertzen diren eta Eskoziako jatorria duten hainbeste “Chotis”.

“Markesaren alaba” eta “Pasaiaiko herritik” euskal herri-kantu ospetsuen arteko lotura melodikoa.

Eta beste askoren artean bertsolariek horrenbeste erabiltzen duten “Uso zuria” kantaren doinua, hamaika aldaeretan Europa osoan ezagutzen dena (besteak beste gaztelaraz “debajo un botón, ton, ton” eta alfabetoa ikasteko “a,b,c,d,...” kantu mnemoteknikoa).

Horrela konpartitzen dugu oinarri bereko herri-musika erreperitorioa beste herriekin, baina bakoitzak berea egiten duela. Batzuetan doinu hori kanpotik etorri zaigu eta besteetan hartu egin digute. Adibide bat: orain urte batzuk Katalu-

niako Vilafranca del Penedes herriko festetan “grallers”en goizeko diana entzuten gindoazela gure “bat, bi, hiru, lau” antzeko pieza jotzen ari zirela. Galdetu nuen doinu hari buruz eta “La marcha del Serra” zela erantzun zidaten. Ez zen berdina, baina ikusten zen biak oinarri berekoak zirela. Serra hori graller (dulzainero antzekoa) bat izan zen eta berari buruz jaso nuen informazioaren artean jakin nuen XX. mende hasieran soldaduzka Donostiako Loiolan egin zuela. Bertan ezagutuko zuen gure martxa hori eta bere iragazki edo galbahetatik pasaturik beste herri-doinu katalan hori sortuko zen.

Baina esaten nuen bezala, berezkotasuna hartu behar du kanpotik hartutako horrek. Ez da nahikoa bertan erabilia izatea. Inork ez luke esango “zorionak zuri” (happy birthday to you), “din dan don eguberri on” edo Wagner eta Mendelssohnen “Ezkontzetako martxa” euskal herri-musikaren doinu direnik, nahiz eta Euskal Herrian aspaldidanik asko eta modu normalizatuan erabili izan diren.

Beraz jatorriz bertakoa izan eta bertan hazi dena edo unibertsala izanik berezkotasuna emanez bertakoa egiten denean, hori guretzat herri-musika da. Horregatik alde batetik musika hizkuntza unibertsala dela esaten bada, bestetik zera esan dezakegu; herri-musikan bi alde edo osagai agertzen direla: unibertsala bata eta bertakoa edo partikularra bestea. Alde batean herri-musikaren osagai unibertsalak agertzen dira: erritmo, tonu, tinbre eta hotsen jokoak, hauen konbinazioak, tentsio eta orekaren artekoak, ... Beste aldean berezko osagaiak; emaille bakoitzak interpretatzerakoan ematen duena, norberaren ekarpena, gizarte talde batek onartzen duen joera, estiloa, ...

Halako herri-musika edukitzea nola lortzen da? nola prestatzen da?

Herrietako herri-musikak bi alde edo osagai dituela diogu. Baina bertan “sortua” edo jatorriz unibertsala izanik, berezkotasuna eta partikularitasuna hartzeko, herri-musika hori osatzeko eta bizi, berezi eta aldagarri mantentzeko herri edo gizarte horrek musikarekiko bi baldintza bete behar izan ditu eta behar ditu:

- JARRERA IREKIA ETA SORTZAILEA
- MUSIKARAKO GAITASUNA

Herri-kulturetako hezkuntza sistema integralek jarri dituzte hori izateko behar diren baldintzak. Jaioz geroztik amaren besoetan, haur jolasetan, gazteen jardueretan eta beste hamaika ekintza eta giza ohituretan, herriko “Folklorea” izendatzen dugun horretan agertzen dira gauza guzti hauek.

Eta sistema horietan funtzionatzen dute neurri handi batean gaur egun musikarako “berezko” gaitasuna duten gizarte batzuek: ijitoak, beltzak,...

3. HEZKUNTZA MUSIKALA HERRI-KULTURETAN

Jaioz geroztik (edo aurretik) hasten da. Jaioberria amaren tripatik besoetara, magalera, bizkarrera,... modu horretan ez da apartatutik sentitzen eta babesa ematen dion gertutasun horretan jarraitzen du erritmoa ezagutzen.

Sehaska aroko haurra lasaitzeko edo gorputzaren alde ezberdinak mugiarazteko zuzen zuzenean kantatzen zen. Ama-amonaren besoetan hazi den haurrak zuzen zuzenean entzun dituen kantuen bitartez, zenbait balioen garapena lortzen du (entonaziorako, erritmorako, dantzarako,... gaitasuna), guzti hori, abesterakoan egiten diren gorputz mugimenduen, kantu monodiko edo polifonikoen, eta abarren bitartez lortu da.

Gorputzaren erritmoa, pausoak, dantzak, ...
Lo har arazteko kantuak: erritmoak, erregularrak, lasaiak, ...
Psikomotrizitatea lantzeko kantuak: behatzak, eskuak, hankak,

Haur-jokoak; sokak, makilak, sillak, almuteak,...
Bestelako ikasketako kantak, matematikak,...
Haur jolas partehartzaileak abesturiko doinuen bidez egiten ziren.

Hots jostailuak.

Hots-jostailuek hainbat funtzio bete dute haurren herri-hezkuntzan. Jolastea izan da horietako bat. Irudimena eta asmamena lantzeko benetan oso tresna egokiak dira. Gorputzaren psikomotrizitatea eta trebetasuna lantzea beste bat.

Herri-kulturan hots-jostailu asko, urtaroz urtaro, inguruko lurak emandako landare eta fruituekin egiten dira. Hots-jostailu horiek, beraz, urte garai zehatzekin lotzen dira, eta horien bitartez eguzkia, ilargia eta landareen zikloak ezagutzen dira.

Baina hots jostailuek betetzen duten funtzio nagusienetakoa, musikarekin loturik dago. Benetako soinu-tresnak nola funtzionatzen duten ikasten da, kasu gehienetan jostailu hauek soinu-tresnen prototipoak baitira eta bestalde, jolasterakoan musika era aktibo eta sortzailean egiten da, esaldi erritmiko eta melodikoak eginez.

Erritmoa lantzeko hots-jostailuak.

Doinua lantzeko hots-jostailuak. Tonuak, neurriak, formak, ...

Erritmo, tinbre eta linea melodiko ezberdinak ezagutzen hasteko soinu-zko jostailurik egiten zen. Aldaketa hauekin batera, psikomotrizitatearen eta gorputz trebetasunaren garapenean, abesteko eran, materialen eta beren soinu ezaugarrien eta soinu-tresnen erabileraren ezagutzan galerak jasan dira.

Jolasterakoan jarrera sortzailea edukitzea ezinbestekoa da. Bai oinarrizko erritmo eskemak nahiz esaldiak osatzeko, baita aldaerak sortzeko ere. Halako hots jostailuek ematen dute oso garrantzitsua den beste aukera: gorputzaren eta buruaren bi hemisferio koordinatu behar dira.

Horretan bertsolariek ere badute antzeko zerbait. alde batetik bertso hitzak antolatu behar dira eta bestetik doinua.

Gazteek beren edozein festa eta bileratxotan dantzarako, harremanetarako eta entretenitzeko beti abesten zuten.

Musika hezkuntzarekin jarraitzeko gizartearen funtzionamenduko momentu eta ekintza askotan adin guztietako praktika musikala erabat normalizatua zegoen. Besteak beste, lana (bai lanera joateko, itzultzeko edo egiteko, erritmoa markatzeko erabili izan diren kantu, joaldi eta doinuak), urtaro (urtaro aldaketak ospatzeko festak, besteak beste udaberri-ihauteriak, uda-San Joan, udazkena-San Martin, negua-Eguberriak), uzta (lurra esnarazteko, eguraldi egokia lortu ahal izateko, eta bestelako ekintzak), artazuriketak, gizarteko gertaera ezberdin, eta abarrekin lotua dagoen musikarekin.

4. HERRI-MUSIKA EUSKAL HERRIAN

Inork ez du zalantzarik Euskal Herriak, munduko beste herri askok bezala, urteetan eta belaunaldiz belaunaldi herri kantutegi eta doinutegi ugari eta aberatsa osatu duela.

Eta hori zergatik gertatu da? Bada, zalantzarik gabe herri kantari eta musikaria izan delako, era askotako kantuak eta doinuak emanaz.

Zalantzarik gabe zuzeneko erlazioak errazten eta eragiten duen ahozkotasuna izan da arlo horretan guzti hori lortzeko erabilitako eta funtzionatu duen transmisio sistema nagusia.

Horrela osatu dira besteak beste gure danboliteroen, dultzaineroen, soinu-joleen eta bestelako musika-joleen errepertorio ugari eta aberatsak. Horrela iritsi zaizkigu albokarien eta txanbelarien perla musikalak ere.

Horrela iritsi zaigu bizirik ume eta haur kantutegia, gazteen bizitzarena, errondako eta santaeskekoak, elizatakoak eta abar.

Baina gure inguruko herri-musikaren egoeran, aldaketa nabarmena da. Gaur egun, eta batez ere gure inguruko herrialdeetan, berezko herri kulturaren egoera asko aldatu da eta horrekin batera herri-musikaren egoera ere bai. Kulturaren zabaltze eta transmisio sistemak asko aldatu dira. Jadanik ez dira belaunaldiz belaunaldiko komunikazio era posible egiten zuten lehengo baldintza haiek ematen. Ahozkotasunak interpretaziorako eskaintzen duen malgutasuna eta askatasuna galdu egin da, dena lotuago dago, itxiago dago, aldagaitzagoa da.

Informazioa beste modu eta bide batzuetatik jasotzen da (idatzia, irratia, telebista, musika grabazioak...), hau ugariago eta zabalagoa da, nazioaren muga berberak ere gaintitzen direlarik. Honek eragin du, besteak beste, gehien entzuten den musikan itxura estetikoak gero eta uniformeagoak izatea.

Aurrekoarekin batera, aipatu beharra dago, herriaren parte hartze aktibo eta zuzena txikiagoa dela. Horregatik, azkenaldian hainbat eta hainbat musika "hiz-

kuntza” eta “euskalki” berezi galduak dira, eta honek eragin du herri askotako ondarearen atzerakada hain era nabarmenean garatzea.

Bizitzeko, harremanak izateko eta komunikatzeko erak izan dituen aldaketak, aurreko ohiturekin loturiko zenbait elementu kulturalen eraginkortasunean (hala nola, dantzetan, abestietan eta nola ez hauei bizitza ematen zien soinu-tresnetan) galerak ekarri ditu.

Musikan, jadanik lehenengo urratsak ez dira zuzenean ematen, lehen bezala ahotsak eta inguruko soinu-tresnak entzunez. Transmisio sistemak eta musika ikasteko sistema berriak asko aldatu dira. Gaur egun, gure inguruan, umeak ez dira garai batean bezala ama-amonaren besoetan hazi. Sehaskan dagoen haurra lasaitzeko edo motibatuzeko zuzen zuzenean kantatzen ziren abestiak, disko eta kasete komertzialen entzunaldiek baztertu dituzte. Ama-amonaren besoetan hazi den haurrak zuzen zuzenean entzun dituen kantuen bitartez, bestela lortuko ez lukeen zenbait balioren garapena lortzen du (entonaziorako, erritmorako, dantzarako,... gaitasuna), guzti hori, abesterakoan egiten diren gorputz mugimenduen, kantu monodiko edo polifonikoen, eta abarren bitartez lortu da. Nabarmena da guzti hau mantentzen den herrietako haurren musikarako ahalmena handiagoa dela (Afrika, beltzak, ijitoak,...). Alderantziz, guzti hau gure inguruan galdua da, eta bertako haurrengan duen eragin ezkorra argi ikusten da.

Haur jolasak ez dira partehartzaileek abesturiko doinuen bidez egiten. Jadanik ez dira erritmo, tinbre eta linea melodiko ezberdinak ezagutzen hasteko soinu jostailurik egiten. Aldaketa hauekin batera, psikomotrizitatearen eta gorputz trebetasunaren garapenean, abesteko eran, materialen eta beren soinu ezaugarrien eta soinu-tresnen erabileraren ezagutzan galerak jasan dira. Hots-jostailuekin musika eginez emandako haurtzaroko horrenbeste jolas ordu ere galdu egin dira.

Gazteek ez dute lehen bezala, beren festa eta bileratxotan abesten; orain, gehienetan, grabaturik dagoen musika entzutera mugatzen dira.

Berbera gertatzen da, lehen aipatutako besteak beste, lana (bai lanera joateko, itzultzeko edo egiteko, erritmoa markatzeko erabili izan diren kantu eta doinuak), urtaro (urtaro aldaketak ospatzeko festak), uzta (lurra esnarazteko, eguraldi egokia lortu ahal izateko, eta bestelako ekintzak), gizarteko gertaera ezberdin, eta abarrekin lotua dagoen musikarekin.

Beraz, musika, pertsona eta gizartearekin zuzenean zegoen harremanetan. Orain, musikaren sormena, interpretazioa eta kontsumoa aldatu da, bai familian, baita gizartean ere eta horren ondorioz gure gizarteak erabiltzen duen forma musikalen aniztasuna egunetik egunera txikiagoa da, eta horrekin batera gure musikarako gaitasun orokorrak ere behera egin du.

Argi izan behar dugu ez direla egoera haiek berriro egokituko, baina komenigarria izango litzateke atzera begiratzea: lehen zegoena ezagutzen, oraindik irauten duena mantentzen eta galdu denaren alderdirik baliagarrienak berreskuratzen saiatu beharko genuke.

5. HERRI-MUSIKAREN EGOERA GARAI BERRIETAN

Herri-musikaren egoerari buruzko azterketa eta balorazioa egiterakoan nola-ko abiapuntu edo ikuspuntutik egiten den oso garrantzitsua da.

Lehenago ikusiko dugu herri bat bere historian edo bizian beti zerbait galtzen ari dela, batzuetan aurrekoa galtzen delako eta bestetan aldatu egiten delako. Baina modu berean, askotan, aurrekoa galtzen den neurrian berria sortzen da eta horren balorazioa egiterakoan izaten ditugu gure artean desadostasun handienak. Gutxitan ematen diogu sortzen ari den berri horri, gure kasuan musika, “herri-musika” edo musika tradizionalaren izendapena. Badirudi horretarako beti denbora pasa behar duela.

Herri-musika galtzen ari den alde horretatik bakarrik ikusten badugu, beti egongo gara herri-musikaren historiaren bukaeran. Horrela gertatu da lehen eta horrela gertatzen da orain.

Herri-musikaren egoera lehen ere larritzat jotzen zutela, badira testigantzak. Oso adierazgarria da Aita Donostia eta Aita Jorge Riezuren artean XX. mendearen hasieran ematen zen eztabaida, adibidez. Azken honek toki eta bazter gutietan batere ordenik gabe A. Donostiaren paperak ikusitakoan zera esaten omen zion; *Jose Antonio, ordenatuagoa izan behar duzu!* eta A. Donostiak erantzuten omen zion; *Jorge, ez da ordenatzeko garaia baizik eta biltzeko garaia.*

Niri iruditzen zait horretan Aita Donostiak ez duela arrazoi osoa. Beti da biltzeko garaia eta saiatu behar dugu bildutako materiala ahal den eta modu egokienean jasotzen, aztertzen eta sailkatzen. Aita Donostia han aritu zen, “hau joango zait eta galdu egingo dugu” bere buruari eginez, “bestea ere joango zait, eta hura ere galdu”; horregatik zioen “*biltzeko garaia da*”.

A. Donostia joan zen eta ondoren euskal herri-musikaren altxor handia bildu eta argitaratu da. Besteak beste hor dauzkagu J. M. Barrenetxeak albokaren inguruan bildutakoa, Iruñako Gaiteroek bildutako gaita-dultzaina eta txanbelaren informazio eta errepertorioak, Elai Alaiako dultzaineroak bildutako Bizkaiko Dultzaineroen errepertorio berezia eta aberatsa, azken urtetan gure argitalpen ezberdinetan ikertzaile eta biltzaile ezberdinek argitaratutako lanak eta gaur egun egiten ari den abar luze bat.

Beti izan da biltzeko garaia eta neurri berean ordenatzeko garaia. Biltzen ez bada ezinezkoa izango da ordenatzea, aztertzea eta geroago ezagutzea, baina bildutako materiala ez bada garaiz sailkatzen eta eskaintzen denborarekin galdu egiten da hori egiteko aukera. Beraz, biltzea eta ordenatzea, biak garrantzikoak dira. Adibidetzat hor daukagu hamaika biltzaileren artean, urtetan bildutako bertso doinutegian hain garrantzitsu eta erabilgarri bilakatu den Joanito Dorronsorok ordenatzeari buruz egindakoa. Lan hori liburutetan argitaratu zen eta ondoren Bertsozale Elkarteak internet sarean eskuragarri jarri zuen.

Biltze eta ordenatze gai horretan, gaur, berdin gaude. Lan horretan aritzen garenok konturatzen gara batzuk joan zaizkigula, kasu batzuetan ezagutzen zuten informazio osoa edo zati bat jaso ondoren, zekitena beraiekin eraman zutela betirako; beste batzuk gure artean dauzkagu oraindik. Ezagutu ditugun eta gurekin jarraitzen dutenekin gure herri-musikaren “perla” preziatu asko bildu dugu azken urteotan, besteak beste: eltzegorra, sunpřiñua, txalaparta, ote-jotzea, kanpai joaldiak, tronpa-mosugitarra,...; dantza doinu, kantu eta bertso zaharrak; soinu-jole, txistulari, dultzainero, txilibitulari eta albokarien errepertorioa eta egiteko dagoen abar luze bat.

Batzuetan musika ineditoak eta besteetan lehen musika-paperetan idatzian agertzen direnak eta orain audio euskarrian jasota aurreko partitura horiei hotsa eta bizia ematen dizkietenak.

A. Donostia zegoen antzeko egoeran gaude. Eta espero dut hemendik ehun urtera ere halaxe arituko direla. Gure herri-musikak bizirik jarraitzen baldin badu behintzat, beti izango da biltzeko eta ordenatzeko garaia. Eskerrak Aita Donostiak han ondoan zeukan Aita Jorge “ordenadorea”k bere lana egin zuela eta gure eskura jarri zuela besteak bildutakoa.

Gizarte eta kultura guztietan beti ari da zerbait galtzen, aldatzen eta sortzen. Hori horrela izan da, horrela da eta horrela izango da. Zenbat, zer eta nolakoa den galtzen dena kontuan hartu beharra dago eta noski galdu baino lehen, hori jasotzeko aukera edukiz gero jaso beharko litzateke. Horrela osatzen eta ezagutzen da herri eta kasu honetan herri-musika baten historia.

Jaso gabeko gauza asko galdu ditugu azken garaietan gure herri-musikan eta hori betirako galdu dugu. Adibidez eta besteak beste honako soinu-tresnak: zarrabetea, ttunttuna, arrabita eta biolina, gitarra, lautea, bandurria, zitara eta xiolarrua. Nolakoak ziren soinu-tresna hauen jotzeko erak, tinbreak, interbalika edo eskala zaharrak? Gutxi batzuk ezagutzen baditugu ere, zoritxarrez gehiengotan ezin dugu jakin nolakoak ziren orain bi edo hiru mendetako erritmo eta doinu neurriak.

Galtzen diren musika eta soinu-tresnen artean, batzuk, galtzen diren beste ohiturekin loturak dituztelako galtzen dira, edo hauen izaera aldatzen delako: Ote-jotzea edo kirikoketa musikak galdu egin ziren ote jotze eta sagarra jotze lanak egiten utzi zirenean. Sunpřiñua jotzea artzain, artzantza eta inguruaren aldaketekin batera desagertu zen. Artazuriketak deitutako bileretan kantatzen ziren kanta eta egiten ziren jokoak utzi egin ziren lan-bilera horiekin batera. Zikiratzaileek erabiltzen zituzten txilibituak eta musika galdu egin ziren ofizio horrek herriz herri eta etxez etxe ibiltzeari uztearekin.

Nafarroako Erriberaldeko nekazariak ilunabarrean soroetatik bueltan, batzuetan bide luze horietan entretenitzeko, ondorengo jotak adierazten duen bezala, bidea kantatzen egiten zuten:

*¿Por que vienen tan contentos los labradores?
que cuando vienen del campo vienen cantando,
por que las semillas de oro ya van granando,
y está germinando el fruto de sus sudores
y está germinando el fruto de sus sudores.
¿Por que vienen tan contentos los labradores?*

Azken garaietan bide hori ez dute lehen bezala talde handi edo txikitik, oinez, zaldiz edo gurdi gainean egiten; horrela posible zen kantatzea, baina orain traktorean sarturik ezin dute kantatu.

Zenbait herri-dantza galtzen denean ere, horiekin batera, askotan dantza doinuak eta horretarako erabiltzen diren soinu-tresnak galdu edo desagertu egiten dira. Eta horrela gertatu da beste musika eta soinu-tresna askorekin.

Horrela, zenbait musika eta soinu-tresna mantentzen dira funtzio bati lotuta daudelako. Adibidez: Irun eta Hondarribiako alardeek txilibitua mantentzen dute, Eleizetako ekintzek kanpai joaldiak, Nafarroako auroroetako emanaldiek zanbonba, triangelua, goilareak eta hezurtxoeren erabilera, Zuberoako dantzek xirula eta ttunttuna, eta abar.

Bestalde, gaur eta gure inguruan herri-musika aldatzen ari dela garbi dago, baina galtzen dena garrantzizkoa izanik, badugu baikorrak izateko arrazoirik ere. Esate baterako trikitixaren munduak jarraitzen du proposamen berriak eskaintzen, albokari berriek ere bai, txalaparta mundua aurrera doa bere bide berria egiten,...

Noski, denok ez ditugu berdin ikusten eta baloratzen ematen ari diren berrikuntza eta aldaketak. Baina hori horrela gertatu da lehenago ere. XX. mende erdialdean zabaldu ziren “Jazbanak” eta “orkestina” berriak. Talde hauek bertako herri-dantza doinuekin batera kanpotik etorritako dantza doinuak jotzen zituzten eta inork ez zituzten gure herri-musikaren barruan ikusten, baina gaur egun gure tradizioaren zati bat dela onartzen dugu. Horrela gertatu da Gelatxo, Kaxiano eta antzeko taldeekin. Orain oso tradizionaltzat jotzen dugu Laja (soinu-txikiarekin), Eguren (saxoarekin) eta Ziolar (bateriarekin) hirukoteak “Azken jazzbana” izenarekin egiten dutena. Talde honek orain dela berrogei eta hamar urtetako erronomia kuttun haietara eramaten gaitu doinu dantzagarrienak eskainiz.

Kepa Junkerak 1988ko trikitixa txapelketan Donostiako Belodromoan arin-arin berria jotzerakoan “twist” dantzatzeko hasi zitzaionak ez zuen intentzio txarrik noski, hark Kepak jotzen zuena ez zela “trikitixa” adierazi nahi zuen. Ez zuen razionalki jakingo zer gertatzen ari zen erritmo aldaketa harekin, baina ziur nago estilo berria “kaltegarria” zela pentsatuko zuela.

Geroago arin-arin jotzeko joera hori erabat onartua izan da eta “tradizionala” egin da. Erritmo aldaketa txiki horrek beste kutsu bat hartu du eta gaur egun trikitilari gehienek modu horretan jotzen dute “betikoa” delakoan.

Guri ere berdin esaten ziguten txalaparta jotzerakoan lauko erritmoan jotzen hasi ginenean. Jotzen genuen hori ez zela txalaparta! Guk ez genuen asmatu lauko erritmoa, txalapartari zaharrek ttakun ttan ttakun joaldia hasi eta “tenpoa” azkartuz, laukoarekin bukatzen zuten. Guk lauko hori “tradizionala” zen moduan egiten genuen, baina joko eta erritmo berria jorratu nahian joaldia hasieratik laukoan oinarriturik jotzen hasi ginen. Geroago are gehiago esaten zuten beste erritmo berriak erabiltzen hasi ginenean. Gaur egun dedikazio maila batez txalaparta jotzen jarraitzen duten gehienek joera zaharrak baztertu gabe, normaltasun osoz berriak erabiltzen dituzte eta erritmo bariatate aberats hori da gaurko txalapartaren ezaugarri nagusienetakoa.

Albokarekin berdintsu gertatu da. Albokari berri gehienek, albokari zaharren errepertorioa ezagutzea eta jotzeaz gain, sortutako pieza berriak erabiltzen dituzte. Pieza berri hauetako batzuk ia “tradizionalak” egin dira albokarien artean.

Batzuk alde ezkorretik begiraturaz esango dute joera berritzaile horiek akabatu dutela gure benetako euskal “kultura” gurea ez denarekin ordezkaturaz, eta beste batzuk alde baikorretatik harturik, gure herri-musikaren arbola biziaren kimu edo adartxo berrien sorrerak ikusiko dituzte. Gauza gehienek izaten dituzte bi alde horiek; baikorra eta ezkorra. Dena da garrantzitsua eta ezer ez da ezinbestekoa.

Horren aurrean zera esan nahi dut; sakratutzat hartzen dugun guztia ez dela izaten beti hain sakratua, ez eta kondenatzen dugun guztia hain kondenagarria. Ezin dugu automatikoki kondenatu gure mundu honetara iristen den berria. Askotan itsu itsuka zaharra dena sakratua egiten dugu eta berria txartzat hartzen dugu, kontuan hartu gabe gaur ezagutzen dugun “tradizio” hori egun batean garai hartako zaharrenean aurrean agertzen zen berria izan zela.

Berriak sortu, berpiztu edo garatuz, horrela ikusi nahi ditugu trikitixa, txalaparta, alboka, txistua edo bestelako musikari eta musika taldeak, baita beste musika motetan ere, esate baterako “rock radical vasco” izenarekin ezagutzen duguna. Lortuko al du azken honek bestearekiko berezkitasuna eta sartuko al da euskal herri-musikaren sailean?

Beti aldatzen, beti bidea egiten, baina bidea jarraituz, ez aurreko bidea utzi edo ahaztuz. Bakoitzak berea egiten, zeren herri-musika bakarra bada eta denok musika estilo bera eginez gero ez dugu euskal herri-musikaririk edukiko.

6. HERRI-MUSIKA BILTZEKO IRIZPIDEAK

Lehenago ikusi dugu herri-musika edo musika tradizionala zer den erabakitzen duen irizpidea ez dela aldagaitza izaten eta horri lotua edo horrek eraginda, zer material bildu behar den baloratzerakoan ere irizpideak egunez egun eta belaualdiz belaualdi, beti aldatzen ari dira.

A. Donostia eta R.M. Azkue biltzen ari ziren garaian ez zuten hartzen beraien koadernotan soinu-jole edo trikitilarien musika. Dultzainero-gaiteroen errepertorioa

ere gutxi hartu zuten. Berdin gertatu zen errondailak, “jazbanak” eta antzeko musika taldeekin. Garai hartan ez zuten hauen musika herri-musikatzat hartzen.

Garbi zegoen hauen erreperitorioan doinu eta dantza herrikoiak izaten zirela baina era berean berriak eta kanpokoak ziren doinu eta dantzak hartzen zituzten, biltzaile haienzat “euskal” nortasun edo berezkitasun ez zeuzkatenak.

Antzekoa gertatu zen Alan Lomax amerikar herri-musika biltzaileak Euskal Herrian (Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldean) egindako grabazio bildumarekin. Honek 1951-52. urteetan egindako bilketan ahotsak, txistulari, albokari, toberalari (grabazio hauek galdu egin badira ere), panderojole eta nafar dultzainero-gaiteroen musikak hartu zituen eta harritzekoa bada ere, ez zuen soinu-joleen grabaziorik hartu. Kontuan hartzekoa da garai hartan, kromatikoa edo trikitixa izan, akordeoia zela erromerietan eta bestelako baserritar nahiz kaletar herri festa eta ospakizunetan presentzia handia edo handiena zuen soinu-tresna. Akordeoi-trikitixa gure lurraldean agertu zenean erromeria eta dantza tokietatik baztertu zituen aurreko soinu-tresnak: txistu, dultzaina, zeharkako flautak,... giro horietan ia soinu-tresna hegemonikoa bihurtuz.

Horrek soinu-tresnaren erabilera aldetik galera nabarmena suposatu zuen noski, baina bestalde esan behar dugu soinu-jole haiek hartu zutela aurreko soinu-tresnen erreperitorioa eta berea eta berezkoa egin zutela. Soinujole zaharren erreperitorioan aurreko dultzainero, txistulari eta albokariaren musika entzun dezakegu. Kasu askotan aurreko txistu eta dultzaina joleen familietan sortzen ziren soinu-jole berri hauek. Horregatik berriz errepikatuko dugu bi motatako ondorioak eragin zituela akordeoiaren etorrerak: bata ezkorra; aurreko soinu-tresnen presentziaren galera eta bestea baikorra; erreperitorio zaharraren jarraipena. Eta erreperitorio zahar hori izan zen gure hasierako trikitilarien oinarria eta abiapuntua, gaur egun ezagutzen dugun trikitixaren estilo berri horren abiapuntua. Geroago, soinu-tresna berri horrek ematen dituen aukerak, jole horien jarrera irekia, gaitasun musikala, erreperitorioaren zabaltasuna eta bestelakoek eragin dute gaur egun munduan hain preziatua den trikitixaren berezko estiloaren osaketan.

Herri-musikan erabili da balorazio irizpide oso zuzena izan ez dena eta material musikala maila ezberdinetan sailkatu izan duena: “autentikoa”, berezkoena, aberatsena, pobrea (RM Azkuek CPV kantutegirako bildutakoetatik zein kantu sartu aukeratu zituen eta asko kanpoan geratu ziren), konplexua, sinplea, eta abar. Hori dela eta herri-musika biltzaileek ez zuten jasoko soinu-jole, dultzainero-gaitero edo danboliteroen joera berririk, baina disketxe komertzialek trikitilari, dultzainero eta txistulari kaletarren musikarekin disko bat baino gehiago grabatu zituzten. Ez noski dokumentu gisa, baizik eta sortu zen musika merkatu berri horretan herri-musika horrek jarraitzaile eta erosleak zituelako.

Bildu edo hartu gabe edo gutxi egin utzi zituzten orain biltzen ari garen eta lehen aipatu ditudan zenbait musika “berezi” ere: txalaparta, toberak, ote-jotzea eta bestelako aldaerak, kanpai joaldiak, eltzegorra, tronpa-mosugitarra, Gipuzkoako dultzainero eta albokariaren erreperitorioa, arxaluak-txaramelak, kanaberak, hots-jostailuak,...

Lehengo gauza asko geratzen dira biltzeko eta horrez gain ezin dugu ahaztu lehen aipatutakoa; egunez egun gure herrian musika aldatzen eta sortzen ari dela. Garai batean gertatu zen bezala orain eta hemendik aurrera gauza bera gerta daitekeela (hala komeniko litzateke). Gure dultzainero, txistulari edo soinu-jole zaharrek egin zuten bezala, oraingoek ere musika egin dezaketela eta egin-go dutela, "herri-musika" bihurtu daitekeena.

Joera irekia eta sortzaile horrek eragin zuen lehen eta eragiten du oraindik Euskal Musika horren barruan horrenbeste joera eta estilo ezberdin izatea: soinu-tresna batetik bestera, eskualde batetik bestera, garai batetik bestera, giro batetik bestera eta belaunaldi batetik bestera.

Horregatik eta herri-musikak bizirik jarraitzen duen bitartean beti izango da "inbentarioa" egiteko garaia.

7. DOKUMENTAZIOA BILTZEAREN GARRANTZIA

(Bildutako material zaharra: dokumentazioa eta ideei berrien iturri).

Materiala biltzearen garrantzia handia da. Alde batetik bildutako dokumentazioak, momentu bakoitzeko muestra horiek ezagutzeko, aztertzeko eta ikertzeko aukera ematen dute eta bestetik musikagileek, askotan, bildutako musikan agertzen diren ideiak hartu eta egokituz egiten dute bere musika berria.

Bildutako, sailkatutako eta artxibatutako dokumentazio horren bitartez asko ikas daiteke: alde musikaletatik, ez musikaletatik edo bietatik.

Adibidez, Ote jotzea, sagarra jotzea eta kirikoketa joera edo joaldiek sortzeko eta bizitzeko zeukaten testuingurua galdu dutelarik, nola mantendu? zertarako? ez du zentzurik bere horretan jarraitzea eta bestalde ezinezkoa izango litzateke. Baina oso baliagarria egin zaigu musika egiteko. Joko horietatik hartu ditugu eritmoak eta hiru edo lauen arteko jokoak egiteko ereduak.

Alde ez musikaletatik hartuta, oso interesgarriak dira lan-joko horietan egin behar den lana hots joko musikala bilakatuz, lan egitea samurtzeko agertzen diren moduak.

Berdin gertatzen da txanbela edo sunpripriarekin. Hauek musika beste modu batean, erritmo malguan, librean egiteko ideia garbiak ematen dizkigute. Kurio-soa da gazte eta helduen artean ETBko iragarkian sunpripria eta tronparen musikak izan duten arrakasta.

8. SORKUNTZA HERRI-MUSIKAN

Herri-musika izatez sortzailea dela ikusi dugu, baina bestalde beste musika batzutan aritzen diren musikagileek bere ideia egarria asetzeko askotan bildutako herri-musika iturritik edaten dute gaurko musika berriak egiterakoan.

Musika zaharrak eta berriak askotan nahasturik agertzen dira. Euskal herri-musika biltzaile eta ikertzaile nagusienetakoa den lehen aipatutako A. Donostia edo Hungariar eta munduko beste aldeetako herri-musika biltzaile eta ikertzaile izan zen Bela Bartok, biak izan dira XX. mendeko musika akademikoan berritzaile eta abangoardia erreferentzi garrantzitsuak. Biek herri-musikaren iturrira jo zuten obra berriak egiterakoan.

Gaurko sorkuntzaren panoraman ere ikusten dira halako joerak. Musika berriak, erritmo berriak eta joera berriak, askotan musika eta soinu-tresna zaharren eskutik datoz: txalapartak azken garaietan proposamen eta ideia musikal berrien ekarpen interesgarria egin du, albokaren inguruan beste horrenbeste, trikitixa dugu esparru askotan gure gaurkotasunaren ikurra, txistuaren munduan egin diren obra berriak kontuan hartzekoak dira, eta horrela beste kasu asko ere badira.

Hori dela eta, musikari eta musika berberak ikusten ditugu herri-musika nahiz musika berrien jaialdietan.

Nere kasuan, "Egurraren orpotik dator...", "Beti ttun-ttun" eta "Arditurri" lan diskografikoak herri-musika eta musika berrien ataletan agertzen dira. Musika horrekin agertu gara herri-musika jaialdietan (Bartzelonako Tradicionarius, Plascencia, Getxo edo Burdeos) eta musika garaikidekoetan (Bentalló, Berlin, Toulouse, Sevilla).

Ikusten dugunez, ez dago muga garbirik musika tradizionala eta berrien artean. Neure herri-musika fonoteka osatzen hasi nintzenean, kanpokoa edo hemengo izanik, denok folklore, etniko edo herri-musikatzat hartzen dugun musika mota hori erosten nuen eta material hori izan zen Herri Musikaren Txokoaren Fonotekan jarri nuena. Sekulan ez nuen garbi eduki herri-musika zena eta ez zenaren arteko muga non zegoen eta azken garaietan gutxiago. Horregatik erabaki nuen H. M. Txokoaren Fonotekarako Euskal Herrian argitaratutako material gehiena eskuratzea. Horrela, biharko egunerako bertan edukiko dute gure inguruan egin denaren muestra zabalago bat.

Materiala hartzerakoan oso garrantzitsua da euskarri edo soporte onetan egitea. Soporte edo euskarri berrienak, kalitate eta seguritate gehien eskaintzen dituztenak erabili behar dira.

Audio grabaketak, bideo eta bestelako irudi-bizien grabaketak egitea komeni da. Hots informazioa, hotsa eta irudia, biak hartzen dituzten euskarrietan gorde behar da. Kantua eta bertsoa direnean irudia hartzea oso garrantzitsua da: ahotsaren emisioa, eszenifikazioa,... Soinu-tresnen musikarako ere bai: ahokadura, haize emisioa, digitazioa, gorpuz jarrera,... eta testuingurua hartzeak beti laguntzen du eta osatzen du informazioa bilketa.

Artxibo ezberdinetako materialarekin Euskal Kantutegiko hots artxiboa orokorra antolatu behar da. Datu-base batean koordinatu beharko lirakeke gure herri musikaren artxiboetako datu-base guztiak. Ezagutzeko, aztertzeko eta ikertzeko

erabilgarria izan dadin, fitxategiaren egitura ahal eta modu osatuenean, egokienetan eta parametro gehienetatik aurrikusirik egin beharko litzateke.

9. EUSKAL HERRI-MUSIKAREN EGUNGO EGOERARI BURUZKO BESTE ALDE BATZUK

Jakin badakigu beste alde garrantzitsu asko direla jorratu eta aztertu behar direnak, baina lan hori beste baterako geratuko da eta hemen horietako batzuk aipatu besterik ez dut egingo:

- Hezkuntza, formakuntza, transmisio sistemak eta ikasteko aukerak. Transmisio sistema zaharretatik berrietara. Ingurua, giroa eta gizarte funtzionamendua horrenbeste aldatu delarik nola ordezkatu aurrekoa modu egokian? Zer egin herri-musikak bizirik jarraitzeko? Ikastetxeak, Ikastolak, eta eskoletako egitarauetan duen presentzia, irakaslegoaren formakuntza. Irakasleentzako ikasketa egitarau berriak, musika ezagupena eta formakuntza maila.
- Herri-musikaren presentzia musika eskola eta kontserbatoriotan.
- Presentzia bera musika plaza eta “merkatu” ezberdinetan: etxeetan, tabernetan, telebista emisioetan. Kale, plaza eta dantzalekueetatik musika zuzenean desagertzen ari da. Antolatzen diren herri ekintza, ospakizun eta festetan.
- Herri soinu-tresnak eta musikaren erabilera ideologia eta giroaren arabera: Modak, joerak, eta boladak herri-musikan. Trikitixa eta txalapartaren adibide atipikoak. Trikitixa gazteen soinu-tresna izatetik umeen soinu-tresna izatera.
- Oiarzungo gazte asanbladak proposatutako ikastaroak: djembe, didjeridu, txalaparta.
- Txistua Nafarroan ezker abertzalearen ikurra eta Gipuzkoa-Bizkaian PNVko nazionalistena. Herri kantuek galdu dute 1960. hamarkadan zeukaten konotazio abertzale eta iraultzailea. “Euskal rock erradikala” izan da azken garaietan abertzale iraultzaileen bandera.
- Espektakulua, musikari eta taldeak. Herri-musika emaileen “profesionaltasuna”, formakuntza eta dedikazioa.
- Herri-musika diskografia eta multimedia munduan.
- Herri-musika SGAE egileen elkartean.

10. BUKATZEKO

Dantza eta Musika Tradizionalei buruzko Topaketa hauen “Egungo egoera eta Etorkizunerako Ikuspegiak” izenburuak esaten duen horretan oinarriturik zera esan nahi dut: ez dezagun ahaztu gu garela eta guk egiten duguna dela atzoko

“ETORKIZUNA” eta era berean gu garela eta guk gaur egiten duguna dela bihar-ko “TRADIZIOA”.

11. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

BÉLA BARTÓK. *Escritos sobre música popular*, Mexiko: Siglo XXI Editores, 1979; 43. orr.

BELTRAN ARGIÑENA, Juan Mari. *Soinutresnak euskal herri musikan*. Egin Biblioteka. Euskal Gaiak, 42. Orain, 1996.